

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Animalien osasun-arloko prestakuntza espezifikoarekin, ehiztari bezala trebatzeko lehen ikastaroan izena emateko epea ireki da

*Ikastaroa azaroaren 6an eta 7an izango da, eta ehiza larrira bideratuta dago*

Astelehena, 2018.eko urriak 22

Foru Gobernuak lehen ikastaroa antolatu du Nafarroako ehiztariak "Animalien osasun-arloko prestakuntza espezifikoa duen ehiztari" bezala trebatzeko eta egiaztatzeko, Nafarroako Ehiza Federazioak eskatuta. Ikastaroa azaroaren 6an eta 7an egingo da, eta ehiza larriko ehiztarietzat da (koadrilako buruak edo ehizaldiko zuzendariak).

Ikastaroa azaroaren 6an eta 7an egingo da, 17:00etatik 21:00etara bitartean, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuaren ekitaldien aretoan (González Tablas kalea, 9. Iruña).

Izen-ematea instantzia orokor bidez egin behar da edozein erregistro ofizialetan, eta ondorengo adierazi behar da: "Animalien osasun-arloko prestakuntza espezifikoaren ikastaroan izena emateko eskaera"; Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuko Ingurune Naturalaren Zerbitzura zuzendu behar da. Era berean, izena emateko orrian pertsona interesatuaren helbide elektronikoa adierazi behar da, ikastaro honetan plaza lortu duela jakinarazteko. Ikastaroa nahiz egiaztapena doakoak dira.

Izen-ematea irekita dago edukiera bete arte. Plazarik lortzen ez duten pertsonak lehentasuna izango dute ikastaroaren hurrengo deialdian, 2019ko urtean.

Ikastaroa antolatu da otsailaren 2ko 50/2018 Errege Dekretua indarrean sartu ondoren ehiza larriko uxaldietan, 40 postu baino gehiago egonez gero edo 20 pieza baino gehiago botatzen badira, baimendutako albitari ofizial bat egon behar duelako edo, haren lekuan, animalia-arloko osasunean prestakuntza espezifikoa duen ehiztaria, komunitate autonomo bakoitzak baimendua.